

**Espediente mota:** Administrazio kontratazioa  
**Kontratua:** Zerbitzu kontratua, prozedura irekia.  
**Espediente zenbakia:** .....

**ZERBITZU KONTRATUAREN ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK**  
**PROZEDURA IREKI BIDEZKO ESLEIPENA**

**I.- KONTRATUAREN EDUKINA**

**1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea hau da: **VALORA-EUOPAR PROIEKTUAREN KUDEAKETA ZERBITZUA**

Kontratua baldintza-agiri honetan oinarritzen da eta espedientean azaltzen den dokumentazio teknikoarekin bat etorri egingo da. Baldintza-agiri honek kontratu-balioa du.

**2. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA**

Zerbitzu osoa egiteko epea 2 urte urtekoa izango da esleipena egiten den dataren hurrengo egunetik hasita.

Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatiko erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

**3. KONTRATUAREN PREZIOA**

Kontratu honen prezioa 78.750,00 eurokoa da, BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 16.537,50 eurokoa da.

**4. FINANTZAKETA**

Kontratuaren prezioa ordaintzeko behar beste diru aurreikusi da aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura.

**5. NOLA ORDAINDU**

Ordainketa hileroko egingo da, esleipendunak aurkezten duen faktura udalak onartu ondoren.



## 6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Prezioen berraztertzea onartzen bada, hori Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 90 – 94. artikuluen arabera egingo da. Aplikatuko den berraztertze formula finkatu beharko da. \* **KPI erabiltzen bada, gogoratu horren %85 aplikatu behar dela (90.3. art).**

## 7. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3ra artekoa izango da, BEZ kanpo, 2.362,50 €. Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.

Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia irizita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

Kontratuaren esleipendunak, bere gain hartutako beharrak beteko dituela bermatzeko, behin betiko bermea jarri behar du. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren edo, egoki denean, lehiaketaren oinarriko aurrekontuaren edo esleipenaren zenbatekoaren %5a izango da.

Behin-betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliodunekoa izango da, esleipen proposamena jakinarazo eta biharamunetik hasita. Bermea jartzeko bidea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 96. artikuluan azaltzen direnetatik edozein izan daiteke.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beterik badaude.

## 8. KONTRATUA BURUTZEA

Baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian ezarritako moduan burutu beharko da kontratua.



Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da, eta udalaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta udalak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Esleipendunari edo honen agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartu ditzala agindu ahal izango du.

**\*Enpresa esleipendunaren langileen subrogazioa:** 1. Zerbitzu hau errepikatzen denez eta hori ematean parte hartzen duen pertsonalaren lan-egonkortasuna bermatze aldera, enpresa esleipendunak langileen subrogazioa bermatuko du, gaiaren inguruan sektoreko hitzarmenek esaten dutena albo batera utzita. Subrogazio klausula kasu hauetan bakarrik aplikatuko da:

- a) Lan-kontratua daukan eta kontratua egiten duen erakundearentzat azken sei hilabetean gutxienez lan egin duen langileari bakarrik eragingo dio subrogazioak. Ordezkapenak ere sartuko dira, amaitu arte.
- b) Subrogazioak ez die eragingo kontratua lagatzen duen enpresako jabeei, akziodunei, zuzendaritzako kideei, bitarteko karguei eta jabe, akziodun, zuzendaritzako kide eta bitarteko kargu horien bigarren mailako familiartekoei.

## **9. ESLEIPENDUNAREN LAN-EGINKIZUNAK**

Esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienez arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Bereziki, Bermeoko Udalak onartutako Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistemaren helburuak bete beharko ditu (I. Eranskina).

Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Zerbitzuak ematen jardungo duen enpresak, hau da, esleipendunak, udalari eta herritarrei dagokienean, aurrez aurreko harreman, txosten eta azalpen guztiak, ahozkoak zein idatzizkoak, euskaraz burutu beharko ditu. Udalak euskara baino ez du erabiliko bere harremanetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez du inolako itzulpenik eskainiko.

Datu Pertsonalen Babeserako betekizunak zehatz-mehatz betetzea: Enpresa esleituak, proiektuaren gauzapenerako Bermeoko Udalak bideratutako informazio eta dokumentazio guztia konfidentzialtasun osoz erabili beharko du, beti ere, abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoa eta Fitxategi Automatizatueta bildutako datu pertsonalen Segurtasun Neurriei buruzko ekainaren 11ko 994/1999 Errege Dekretuak ezarritakoak kontuan hartuz. Kontratu honen ezaugarriak direla eta, enpresa esleipendunak udalean lan egingo duen langilearen bitartez, Datuen Tratamenduen arduradun izaera bere gain hartzen du eta nahitaez bete behar dituen legezko betebeharez,



lanbide betebeharrak eta betebehar deontologikoez gain, ezinbestean bete beharko du kontratu honek arautzen dituen atzipenaren menpeko datu pertsonalekiko lanbide sekretua; eta Toki Erakundearekin dauzkan harremanak amaitu ostean ere, lanbide sekretua gorde beharrak bere horretan iraungo du. Tratamenduaren arduradunaren eginkizuna izango da behar diren neurri teknikoak eta antolaketako neurriak ezartzea, datu pertsonalen segurtasuna eta osotasuna bermatzeko eta datu horiek aldatu edo galdu ez daitezen eta baimenik gabeko tratamendurik edo atzipenik egon ez dadin.

Honen guztiaren berme legez, II. Eranskin legez agertzen den konpromisoa sinatu beharko da.

Tratamenduaren arduradunak ez baditu betetzen kontratu honetako baldintzak eta, bereziki behean adierazitakoak gertatzen badira, toki entitatea salbuetsita geratuko da ez betetze horien ondorioz sor daitezkeen erantzukizunetatik:

- Tratamenduaren arduradunak datu pertsonalak erabiltzen baditu alde biek kontratu honen bidez hitzartu eta adostu ez duten bestelako helburu baterako.
- Tratamenduaren arduradunak hausten badu datuekiko sekretu gorde beharra edo datuak hirugarren pertsonari ez komunikatzeko betebeharra.
- Tratamenduaren arduradunak datuak erabiltzen baditu kontratu honetan jasotako edozein baldintza hautsiz.

Goian adierazitako arau haustek egiteagatik edo akordio honetako beste edozein baldintza ez betetzeagatik, tratamenduaren arduraduna tratamendu kontrolatzailezat joko da, eta erantzun beharko dizkie berak egindako arau hausteei eta interesdunek Datuak Babesteko Euskal bulegoan aurkeztu ditzaketen erreklamazioei, bai eta ukituei onartzen zaizkien kalte-ordainei ere, euren ondasunetan edo eskubideetan jasandako kalteak direla eta erantzukizun egintzez baliatzen badira.

Kontratu harremana legez bukatu ondoren, tratamenduaren arduradunak erabilitako datu pertsonalak suntsitu egin beharko dira edo tratamendu kontrolatzaileari itzuli behako zaizkio, tratamenduan erabilitako datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumenturekin batera.

## **10. ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratua burutzen dan bitartean, esleipendunaren ardura da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzu publiko edo pribaturik egindako kalteak eta galerak bere gain hartzea, baldin eta bere agindupean dauden langileen egitez, ez-egitez nahiz zabarkeriaz, edo zerbitzua behar bezala ez antolatu, babestu edo bestelakoengatik gertatzen badira. Gauzak horrela, esleipendunaren ardura da kontratuko eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea.

## **11. KONTRATUA ALDATZEA**



Kontratazio plegu edo iragarkian beren beregi aurreikusitako kasuez gain, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 107. artikuluan ezarritako kasu eta baldintza zehatzetan ere kontratua aldatu ahalko da.

Herri-onurako arrazoiak direla eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen I. liburuaren V. tituluko kasuetan ematen diren kontratu aldaketetan, kontratazio organoak adostutako aldaketak derrigorrezkoak izango dira esleipendunarentzat, Errege Dekretu Legegilearen 219. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Era berean, aldaketok Errege Dekretu Legegilearen 108. eta 211. artikuluetan xedatutako prozeduraren bitartez burutuko dira.

## **12. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME-EPEA**

Kontratuaren xedea dela eta, ez da zerbitzu hartzerik ez berme eperik aurreikusten.

## **13. ESLEIPENDUNARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU**

### **A) KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK DIRELA ETA**

Esleipendunaren erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan kontratua burutu gabe badago, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo kontratua burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,20 euro kontratuaren prezioaren 1000 euroko (212. artikulua).

Atzerapenagatik zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### **B) PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA DELA ETA**

Esleipendunak, bere erruagatik, kontratuko prestazioen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo baldintza administratibo berezien orrietan aipatzen diren zigorrak ezartzea (212.7 art).

## **14. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZIOAK**



Kontratua amaitzeko arrazoiak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 223 eta 308 artikuluetan azaltzen direnak izango dira.

Kontratua amaitzearen ondorioak 225. eta 309. artikuluetan aurreikusten direnak izango dira.

## **15. ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK**

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegileak ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

## **II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA**

### **16. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA**

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Esleipena egiterakoan, honako irizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

- Zerbitzua bideratzeko lan metodologia (45 puntu):
- Proiektua burutzeko, aurkeztutako diru proposamena (25 puntu). Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.

**Gehieneko puntuazioa 70 puntu.**

### **17. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA**

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren kaudimen tekniko eta ekonomiko frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluan adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu



Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 75. eta 78. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

Esleitutako enpresak, esperientzia izan behar du Valora Europar proiektua aurrera eramaten. Gutxienez, la horietan 2 urteko esperientzia ziurtatu beharko du.

Era berean, esleipendunak lanak egitera bidaltzen dituen langileek hurrengo baldintzak bete beharko dituzte beraien lana era eraginkorrean beteko dutela zihurtatzeko:

- Lizentziaturako edo Diplomaturako ikasketak beharrezkoak izango dira. Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan, Ekonomia Zientzietan edo parekoetan.
- Euskara menperatzea, C1 maila edukitzea

Pertsona fisiko edo juridikoek beren kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute. Ordezkariek kontratatuz gero, berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordezkari bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena duela frogatu beharko du agiri bidez. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lehiatzaileen jarduera nagusiak zerikusi zuzena izan behar du kontratu honen gaiarekin, eta haien erakundeak kontratua burutzeko behar beste giza baliabide eta baliabide material eduki behar ditu.

## **18. PROPOSAMENAK AURKEZTEA**

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doan dokumentazio teknikoa ere, honako lekuan, ordutegian eta epean aztertu ahal izango da:

LEKUA: Udal honetako Behr@z bulegoan.

EPEA: 15 egunetan, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bermeoko Udaleko web orrialdean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

ORDUAK: Astelehenetik ostiralera 08:30-14:30. Astearteetan eta ostegunetan 16:30 – 19:00. Larunbatetan 10:00 – 13:00. \*Udan arratsaldeetan itxita egongo da bulegoa.

Proposamenak, aurretik adierazitako leku eta ordutegian aurkeztuko dira 15 eguneko epean, iragarki hori argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Lehiatzaileek hiru kartazal (A, B eta C) aurkeztu beharko dituzte itxita. "A" kartazalaren azpiztitulua hau izango da: "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA". Hona hemen "A" kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) Lehiatzailearen edo haren ordezkariaren nortasun-agiriaren fotokopia, eta horrez gain,



beste pertsona edo erakunde baten izenean badihardu, notario-ahalordea.

b) Lehiatzailea pertsona juridikoa izanez gero:

- Dagokion Erregistro publikoan behar bezala erregistratutako eskritura edo eratze dokumentua, estatutuak edo sortze data.
- Administrazioarekin kontratatu ahal duela egiaztatzen duen eskritura edo ziurtagiria, proposamena sinatzen duenaren alde.
- Arduradunaren NAN.

c) Kontratatzeko debekurik ez duela aitortzea (IV. Eranskina).

d) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzakoak betetzen dituela kreditatzen dituzten ziurtagiriak.

e) Ekonomia Jardueren gaineko Zergan, kontratuaren gaiari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta eman diotela frogatzeko, lehiatzaileak alta-agiria aurkeztuko du, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan. Beti ere, zerga horren matrikulan bajarik hartu ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena erantsiko du.

f) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako kaudimen tekniko edo profesionala (VIII. Eranskina).

g) Eskatutako dokumentu eta baliabideen bidez behar bezala egiaztatutako ekonomia eta finantza-kaudimena (VII. Eranskina).

h) Eskatzen bada, indarreko enpresa-sailkapenaren ziurtagiria.

i) Udalaren diruzaintzan behin-behineko bermea eman izanaren frogagiria.

\*Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialean edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitazailleen Erregistroan izena emanda badago, a) b) c) eta d) ataletan aipatutako dokumentazioaren ordez hau aurkeztu beharko da:

- Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoen indarreko egiaztagiria.
- Egiaztagirian jasotako datuak eta egoerak baliozkoak diren eta indarrean dauden zinpeko aitortpena (VI. Eranskina).

Jatorrizko agiriak edo kopia aurkez daitezke. Kopia aurkeztekotan, behin-betiko esleipena egin orduko, Administrazioak edo notarioak behar bezala kautotu edo egiaztatu behar ditu.

“B” kartazalaren azpiztitulua hau izango da: **“FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZINEZKO IRIZPIDEEN DOKUMENTAZIOA”**. Kartazal honetan irispide ez matematikoak justifikatzeko agiri guztiak eta irispide ez matematiko horien inguruko dosierra sartuko litzateke (zerbitzua





bideratzeko lan metodologia.

“C” kartazalaren azpitulua hau izango da: “PROPOSAMENA”. Hona hemen “C” kartazalean aurkeztu beharreko agiriak:

- a) **Proposamen ekonomikoa**, eskaintzaileak edo aurkezten duen pertsonak **sinatuta**, administrazio-klausula partikularren Pleguaren III. **Eranskin gisa agertzen den ereduaren arabera** idatzita.
- b) Dokumentazio Teknikoa : Eskaintzaileek orrialdeak zenbatuta dituen dossier bat aurkeztu behar izango dute, dagokion izenburuarekin. Hala, banan-banan jaso beharko dira lehiaketa esleitzeko baloratuko diren irizpideei buruzko alderdi oro.
- c) Hala aurreikusten bada, C gutun-azal honetan proposamen ekonomikoaren ereduaren eranskinak sartuko dira.
- d) Ez dira onartuko proposamen hauek:
  - 1) Kontraesanak, ez aipatzeak, akatsak edo zirriborroak dituztenak, Administrazioak eskaintza aintzat hartzeko funtsezkotzat jotzen duena argi ikustea eragozten badute.
  - 2) Aztertutako eta onartutako dokumentazioarekin bat ez datozenak.
  - 3) Eskaintzaren aurrekontua edo gehienezko tasa gainditzen dutenak.
  - 4) Proposamenaren zenbatekoan akats argia dutenak.
  - 5) Pleguaren III. Eranskin gisa ezarritako proposamen eredia nabarmen aldatzen dutenak.
  - 6) Eskaintzailearentzat bidera ezina egiten duten akatsak edo funtsik ez dituztenak.
- e) Letretan adierazitako eskaintza zenbakietan adierazitakoarekin bat ez badator, letretan adierazitako kopurua nagusituko da; dokumentazioa aztertu eta gero, arrazoizko irizpideak erabiliz, Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu salbu.
- f) Eskaintza bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Pleguan baimena ematen bada bakarrik, soluzio aldakorrak izan ahalko ditu; hortaz, eskaintza ekonomikoak ere ezberdinak izan ahalko dira.

## **19. AGIRIAK SAILKATZEA, ENPRESAK AUKERATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Behin, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak epe eta modu egokian jasotako dokumentazioa (“A” kartazala) sailkatuko du, eta, dokumentazio horretan akats materialak sumatuz gero, hiru laneguneko epea emango deutso lehiatzaileari akatsa zuzen dezan (Kontratazio Legearen Erregelamenduaren 81. art).



Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, hilabeteko epean gehienez (160.1. art), aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekiko dira Kontratazio Mahaiak erabakitako egunean. B kartazala zabalduko da arinago (irispide ez matematikoak) eta, behin puntuatuta daudenean, C kartazala (Proposamena eta irispide matematikoak) zabalduko da jendaurrean. "A" kartazalean egon ahal izan diren akatsak zuzentzeko eperik eman bada, epe horrek ez du hilabeteko gehienezko epearen zenbaketa atzeratuko, eta berau eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuko da beti. Era berean, aurkeztutako eskaintzak jendaurrean irekitzeko ekitaldiaren berri emango zaie aurretiaz lehiatzaileei, Telefonoz, posta elektronikoz edo faxez.

Ondoren, eta, hala badagokio, egoki diren txosten teknikoak egin eta gero, Kontratazio mahaiak esleipena egin behar duen Kontratazio Organoari pasako dio esleipen proposamena.

## **20. ESLEIPENA, FORMALIZAZIOA ETA GASTUAK**

Prezioaz gainera irizpide desberdinak baloratzen badira, esleipena 2 hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta biharamunetik kontatzen hasita.

Edozein kasutan, esleipena egin aurretik, esleipen proposamenean agertzen den hurrenkera jarraituz, zerrendan lehenengo agertzen den parte hartzaileari, errekerimendua egingo zaio, hau jaso eta 10 eguneko epean, honako hauek egiteko:

- a) Agiriak aurkeztu edo konpultsatu.
- b) Behin betiko bermea eta, egoki bada, berme osagarria jarri.
- c) Jendaurreko zabalkunde ofizialean gastuak egin badira, aldizkari ofizial eta argitaraldi bakar bateko gastuak ordaindu.
- d) Baldintza-orri administratibo hauetan zein baldintza-orri teknikoetan lan-osasun eta segurtasun betebeharrak frogatzeko beharrezkotzat jo diren agiri guztiak aurkeztu (Enpresa Jardueren Koordinazioa, I. eranskina).

151.2 artikuluan zehaztutako dokumentazioa jaso eta hurrengo egunetik hasita 5 egun balioduneko epean kontratazio organoak kontratua esleituko du. Prozedura negoziatuetan eta lehiaketa-elkarrizketetakoetan, esleipenak finkatu eta zehaztuko ditu kontratuaren behin betiko baldintzak.

Guztiarekin, esleipena motibatua izan beharko da, lizitatzaillei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, web orrialdean publikatuko da, 151.4 artikuluan xedatutako gutxieneko eduki eta baldintzak jarraituz.

Kontratua kontratazio gaiko helegite berezia ezartzeko modukoa bada (40.1 artikulua), ezin izango da notifikazioak bidali eta 15 egun baliodun baino lehenago formalizatu (autonomia erkidegoek hilabetera arteko luzapena ezarri ahalko dute epe honi dagokionez).



Kasu honetan, kontratazio organoak errekerimendua egingo dio esleipendunari, behin helegitea jartzeko epea helegiterik gabe igaro eta gero, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita gehienez 5 eguneko epean formalizazioa egin dezan.

Gainerako kasuetan, esleipendun eta lizitatzailleek esleipenaren notifikazioa jaso eta hurrengo 15 egun balioduneko epe barruan egingo da formalizazioa (156.3 artikulua).

Formalizazio burutzeko esleipendunak honeek burutu beharko dauz:

- Administrazio honen bulegoetara etorri, kontratua administrazio-agiri gisa formalizatzeko.

Esleipena parte hartzaileei jakinarazoteaz gain, formalizazioa web orrialdean publikatuko da eta, kontratuaren prezioa 100.000 euro baino handiagoa izango balitz, BAOn ere publikatu beharko da.

Kontratazio-organoak egingo duen esleipenaren bitartez, kontratuak indar juridikoa hartuko du.

Esleipendunaren erruagatik kontratua dagokion epe barruan formalizatu gabe geratzen bada, Administrazioak ezarri duen behin behineko bermearen zenbatekoaren atxikipena adostu ahal izango du, behin betiko bermearen gainean.

## **21. KONTRATUA FORMALIZATZEARI ADMINISTRAZIOAK UKO EGITEA**

Kontratazio organoak uko egiten badio deialdia egin ostean kontratu bat egiteari, edo esleipenerako prozedura berriz hastea erabakitzen badu, hautagaiei edo lehiatzaileei jakinaraziko die, eta Europako Batzordeari ere jakinaraziko dio erabaki hori kontratua *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu bada.

Kontratua egiteari uko egitea edo prozedura bertan behera uztea kontratazio organoak baino ezin dezake erabaki, esleipenaren aurretik. Kasu bietan hautagaiei edo lehiatzaileei izan dituzten gastuak konpentsatuko zaizkie, iragarkian edo baldintza-agirian jasotako moduan, edo Administrazioaren erantzukizuna arautzen duten printzipio orokorren arabera.

Espedientean behar bezala justifikatutako interes publikoko arrazoiengatik baino ezin izango zaio uko egin kontratu bat egiteari. Kasu horretan, ezin izango da xede berarekin beste lehiaketarik sustatu uko egite horren oinarria izan diren arrazoiek bere horretan dirauten bitartean.

Prozeduraren uko egitearen oinarria kontratua prestatzeko arauetan edo esleipen prozedura arautzekoetan konpon ezin litekeen arau-haustea izan beharko da, eta arrazoi hori dagoela justifikatu beharko da espedientean. Uko egiteak ez du eragotziko beste lehiaketa prozedura bat hastea berehala”.

## **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**



## 22. IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintza-agiri honen arabera egin behar den kontratua administrazio-mailakoa izango da, eta kontratuan bertan zehazten ez den guztiari dagokionez, bereziki Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak bete beharko dira. Horiez gainera, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak, eta bai herri administrazioen kontratazioan erabili beharreko gainerakoak ere.

Administrazio-baldintza zehatzen agiri honen eta espedientearekin batera doan dokumentazio teknikoaren artean kontraesanak izanez gero, agiri honetan zehaztutakoa nagusituko da.

## 23. KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri baino lehen, kontratazio arloko errekurtsu bereziaren mende egongo dira 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40. artikuluko 2. atalean aipatzen diren erabakiak; harmonizatutako erregulazioaren mende dauden obra, obra publikoen emakida, zerbitzu, hornidura, Sektore Publiko eta Sektore Pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak eta akordio markoak; Legearen 17. Artikuluan aurreikusitako subentzionatutako kontratuak; II. Eranskineko 17.etik 27. kategoriara arte sailkatuta dauden eta 193.000 euroko edo gehiagokoak diren zerbitzu kontratuak, eta hastapen-gastuen aurrekontua 500.000 eurokoa eta iraupen epea bost urte baino gehiagokoa duten zerbitzu publikoen kudeaketa kontratuak barne.

113. artikuluan arautzen den larrialdiko tramite bidezko esleipen prozeduretan ebatzitako ekintzetan ez da errekurtsu hau emango ezta, behin kontratua esleituta, baldintza orrietan aurreikusita ez dauden kasuetan ematen diren 105. artikulutik 107. artikulura bitartez burututako kontratuen aldaketekin loturiko kontratazio organoen erabagi eta ebazpenen aurka, horiek esleipena bertan behera uztea edota esleipen berri bat egitea erabaki arren.

Errekurtsu bereziaren mende egon ahal izango dira botere adjudikatzaileek hartutako esleipen akordioak; lehiaketa arautzen duten baldintza agiria, lizitazio iragarki eta prestazioaren ezaugarriak ezartzen dituzten agiriak; tramite ekintzak, betiere azken horiek esleipenean zuzenean edo zeharka erabakitzen badute, prozedura jarraitzea eragozten badute edo defentsarik eza edo bidezko eskubideren edo interesen baten konpondu ezinezko galera eragiten badute. Prozedura jarraitzea eragozten duten tramite ekintzat hartuko dira lizitatzailen baztertzea erabakitzen duten Kontratazio Mahaiaren ekintzak.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakoez aparte, beste ekintza batzuei eragiten dieten tramitazio akatsak espedientea egitea dagokion organoari edo kontratazio organoari jakinarazi ahal izango dizkiete interesdunek, zuzen ditzaten, eta esleipen ekitaldia errekurritzerakoan interesdunek eragiten dizkieten irregulartasunak alegatu ahal izatearen kalterik gabe.



Errekurtsua beren bidezko eskubideetan edo interesetan kalteak jasan dituzten pertsona fisikoek eta juridikoek aurkeztu ahal izango dute, edo errekurtsuaren xedea diren erabakiengatik kaltetuak izan daitezkeenek.

Toki Korporazioen eremuan, Autonomi Erkidegoetako arauak zehaztuko dute errekurtsuak ebazteko eskumena, baldin-eta Autonomi Erkidego horiek eskumen araugile eta exekuziozkoak esleituta badituzte, toki erregimen eta kontratazio arloari dagokionean.

Arau autonomikoetan beren beregizko aurreikuspenik ez dagoen kasuetan, toki korporazioa integratzen den Autonomi Erkidegoak, bere esparruan, eskudun izendatu duten organo berak izango du eskumena.

3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 40.1 eta 40.2 artikuluetan aurreikusitako egintzetatik edozeinen aurka errekurtsua aurkeztea helburu duen edonork aurretiaz adierazi beharko du kontratazio organoaren aurrean aurkeztutako idazki bidez eta errekurtsuaren objektu izango den prozedimentuko egintza zehaztuz. Hori errekurtsuaren aurkezpenerako hurrengo paragrafoan ezartzen den epe barruan egin beharko du.

Kontratazio arloko errekurtsu bereziaren prozedura hasiko da, aurkaratutako ekintzaren jakinarazpena bidali eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta hamabost laneguneko epean aurkeztutako idazki bidez, 151.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Goiko paragrafoan adierazitakoaren kalterik gabe:

Errekurtsua pleguen eta gainerako kontratuko dokumentuen edukiaren aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da beroriek jasotzen direnetik edo lizitatzailerik edo hautagaien ezagutzarako beraien eskura jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Esleipen prozedurako tramite egintzen aurka, edo publizitate gabeko prozedura negoziatuaren aplikazio egintzen aurka ezartzen denean, epea zenbatzen hasiko da balizko arau-haustearen berri izan eta hurrengo egunetik aurrera.

Errekurtsua lizitazio iragarkiaren aurka jartzen denean, argitalpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasiko da epea.

Errekurtsu idazkia kontratazio organoaren erregistroan, edo errekurtsuaren gainean ebazteko eskumena daukan organoaren erregistroan aurkeztu beharko da nahitaez. Idatzi horretako akatsak, hala badagokio, hiru laneguneko epean zuzendu beharko dira.

Errekurtsu bat aurkezten bada, 5 laneguneko epean helaraziko zaie gainerako interesdunei, aurkezpenaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta halaber bost laneguneko epea emango zaie alegazioak aurkezteko. Era berean, espedientea tramitatu duen erakunde, organo edo zerbitzuari espedientea eskatuko zaio, eta hurrengo bi lanegunen barruan igorri beharko du dagokion txosten eta guzti. Lehiatzaileak, edozein kasutan, interesdunak izango dira errekurtsuaren prozeduran.



Interesdunen alegazioak jaso ostean, edo alegazioak aurkezteko epea igaro ostean, eskumendun organoak hurrengo bost lanegunen barruan eman beharko du errekursoaren gaineko ebazpena, eta ebazpenaren berri interesdun guztiei eman beharko die.

Errekursoaren ebazpenak errekurtoa edo haren parte bat baietsiko ditu, edo formulatutako asmoak ezetsiko ditu, edo ez onartutzat adieraziko ditu, eta arrazoituta erabakiko ditu aurkeztutako kontu guztiak. Edozein kasutan, ebazpena bat etorriko da eskabidearekin eta, onartuz gero, esleipen prozeduran hartutako legez kanpoko erabakien deuseztapenaren gainean ebatziko du, lehiaketa iragarkian, gonbit iragarkian, baldintza-agirietan, kontratua edo lehiaketarekin edo esleipenarekin zerikusia daukan beste edozein dokumentu arautzeko baldintzetan jasotako ezaugarri tekniko, ekonomiko edo finantzario baztertzailak ezabatzea barne hartuta, baita ekintzen atzeraeraginaren gainean.

Errekursoaren ebazpenean erabakiko balitz kontratua beste lehiatzaile bati esleitzea, azkeneko horri hamar laneguneko epea emango zaio 151. artikuluko bigarren paragrafoan jasotakoa betetzeko.

Errekursoaren ebazpenaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtoa baino ezin izango da aurkeztu, Administrazioarekiko Auzietarako Eskumenei buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

## **24. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Bermeon, 2014ko urtarrilaren 22an



## I ERANSKINA

### **ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA**

LAPLko 24. artikulua garatzen duen, urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuko 10.2. artikuluan adierazten den bezala, lan arriskuen prebentzioaren arloko enpresa jardueren koordinazioaren barnean, enpresaburu nagusiaren zaintzako betebeharren barruan, enpresa kontratistei hurrengo agiriak aurkezteko eta kreditatzeko eskatzen zaie.

Horregatik ondorengo agiriak aurkeztu eta kreditatu beharko dira:

- ✓ Kontratatutako zerbitzuetan garatu beharreko jardueretako lanpostu ezberdinen **arriskuen ebaluazioaren eta prebentzio neurrien** agirien kopia.
- ✓ Lantokian zerbitzua eskainiko duten langileei emandako **informazioaren** erregistroaren kopia eta langile horien **zerrenda eguneratuta**.
- ✓ Langile horiek prebentzioaren arloan hartu duten **formazioaren** erregistroaren kopia.
- ✓ Langile horien **lan gaitasunaren** mediku ziurtagirien kopia.
- ✓ Zerbitzua emango duten langileei **norberaren babeserako ekipoen ematearen** erregistroaren kopia.
- ✓ Enpresa kontratistaren **arduradunaren izendapena** eta **prebentzio baliabidearen** izendapena balego.
- ✓ **Erantzukizun zibileko** aseguruaren polizaren kopia eguneratua.



## II. ERANSKINA

### DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZINO KONFIDENTZIALA BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA

#### ..... ENPRESEAK AITORTZEN DAU:

Kontratu honen xede diran zerbitzuak emoteko kontratuzko hartu-emonari jarraiki, BERMEOKO UDALarentzat ..... Obrak/ zerbitzua/ lanak egingo dauzala.

Horreek obrak/zerbitzuak/lana egin/emoteko, BERMEOKO UDALAK, ..... enpreseari datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategietara sartzeko baimena emon behar badeutsoz, ..... enpreseak datu pertsonalak eta datu pertsonalen fitxategiak BERMEOKO UDALAREN kontura erabiliko dauzala.

Sarrera hori emoteagaitik, halan behar izatekotan, ezin leitekela ezelan be ulertu lagapen, emote edota Datu Pertsonalen zein Fitxategien transferentziarik dagoanik.

..... enpreseak, udalaren datuez kanpo, kontratuaren xede diran egitekoetarako, jasoten dauzan bestelako datu pertsonalak zein konfidentzialak, Bermeoko Udalaren izenean egingo dauzala, kontratu honen helburua dan proiekturako soilik erabili ahal izango dauzala, udalaren titularidadekoak izango dirala, eta datuen jasoketan Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan eta horren garapenerako araudian ezarritako eginbideak beteko dirala.

Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoan ezarritakoagaz bat eginez, 12. artikuluan, jagoken pertsonen eskubideak bermaturik gelditzeko eta datu zein fitxategi horreetara sartzean jarraitu beharreko legediari eutsiz agintzen dan "hirugarrenek egindako tratamenduak idatziz egindako kontratuan arautuko dira" adierazpenean oinarrituta eta datu pertsonalen jasoketan araudiak exijitzen dauzan zehaztasun, informazio, ardua eta arretan oinarrituta eta, era berean konfidentzialasunak eskatzen dauzan bermeak kontutan eukita, ..... enpreseak onartzen dauzala hurrengo

#### AITORPENAK

##### LEHENENGOA .- *Muga*

.....enpreseak, BERMEOKO UDALAREN ardurapekoak diran datu pertsonaletara eta fitxategietara helduko da lotzen dauen kontratuzko hartu-emonaren izakera juridikoa eta funtzino ekonomikoak halan eskatzen badau, eta, betibe, kontratautako obra/zerbitzua/lanak hobetzeko beharrezkoa izan ezkeru.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEOKO UDALAK itxitako datu pertsonalak zein konfidentzialak, bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Horrezaz ganera, ..... enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbetako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

.....enpreseak ezin izango dauz, ezelan be, BERMEOKO UDALAGAZ daukan kontratu hau beteteko udalaren izenean eta kontratu honen xede dan helbururako jasotako Datu Pertsonalak eta konfidentzialak bestelako helburuetarako erabili, daukien akordioan bildutakoak beteteko baino. Jasotako datuok udalaren izenean egiten dauzala informau beharko dau, eta datu-bilketea honako araudiak agindutakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoa, abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua, zezeilaren 25eko 2/2004 Legea eta urriaren 18ko 308/2005 Dekretua.

Horrezaz ganera, .....enpreseak ezin izango deutse hirugarrenei zabaldu kontratautako zerbitzua beteteko ez bada, ezta kontserbazinorako bada be, Bermeoko Udalaren idatzizko baimen barik.

##### BIGARRENA .- *Araudia*





.....enpreseak Datu Pertsonaletara eta Fitxategietara egindako sarbidea, Datu Pertsonalen Babeserako 15/99 Lege Organikoaren xedapen zehatzak eta garapen araudi ezargarriak arautuko dabe.

.....enpreseak Datu Pertsonalen arautegiak, tratamenduaren arduradunari ezarten deusazan eginbeharrak eta betekizunak eta datu pertsonalen jasoketan kontuan euki beharrekoak bere gain hartzen dauz. Halanda ze, Datu Pertsonalen Babeserako Legeak garatzen dauen berme aginduagaz bat eginez, datuen izakerearen arabera eta ezarten diran tratamenduaren arabera, behar diran neurri teknikoak, antolaketakoak eta behar diran neurriak diseinetako, ezarteko eta gordeteko konpromisoa eta betebeharra daukaz.

#### HIRUGARRENA .- *Ardurea*

Legeak BERMEOko UDALA "arduradun" izentetan dau jagokon administrazioaren zein auzitegiaren aurrean. ....enpreseak, "eragileak", BERMEOko UDALAK emondako aginduak beteta, zuzenean edo zeharka Datu Pertsonalen mendekotasunak sortzen dauzan erantzukizun danak bere gain hartzen dauz.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak edota eskumena daukan beste erakunderen batek, erantzukizunaren egozketa edo gatx-kalteakaitiko ordainen erreklamazioa egingo baleutso Bermeoko Udalari, BERMEOko UDALAK .....enpreseak aurka jo leike Jurisdikzio Zibil Arruntaren aurrean, jagokozan itzulera eta konpentsazio ekintzak bideratzeko, baita beste edozein egiazko, ahalezko, moralezko zein etorkizuneko gatx-kalteak konpentsetako be eta, bardin, informazio konfidentzialak era desegokian erabiltzen badira.

#### LAUGARRENA .- *Konfidentziasuna*

.....enpreseak, sarbidea daukan datu pertsonalen zein eskuratutako informazio konfidentzialen isilpeko izakerea gordeteko eta inori ez zabaltzeko konpromisoa hartzen dau, baita kontratautako obra/zerbitzu/lanetatik kanpo ez erabilteko konpromisoa be. ....enpreseak bere ardurapeko langileek ez dabezala horreek datu pertsonalak zabalduko bermatzen dau, baita modu desegokian ez dabezala erabiliko be.

Konfidentziasun eginbehar horrek, BERMEOko UDALAREN ardurapean dagozan datu pertsonaletara edo fitxategietara .....enpreseak egindako sarbidea dala-eta, Bermeoko Udalagaz egindako kontratuaren helburua lortzeko honen izenean jasotako bestelako datu pertsonalak dirala-eta, zein eskuratutako informazio edota datu konfidentzialak dirala-eta, sortutako zerbitzu hartu-emonan amaitu ostean be iraungo dau egitez edo eskubidez, itxura, era eta denpora albo batera itxita.

#### BOSGARRENA.- *Ebazpena*

Honek akordioak muga bako iraupena dauka, baina obra/zerbitzu kontratuen hartu-emonaren iraupenagaz lotuta dago. ....enpreseak, obra/zerbitzua/lanak amaitu eta gero, zerbitzua beteteko erabili dauen euskarria deuseztatu egingo dau, baita kopiak eta bestelako euskarriak be (informatikoak izan zein ez), beti be, Udalak itzultzeko eskatzen ez badeutso.

#### SEIGARRENA.- *Ezarri leitekezan jurisdikzioa eta legeria*

Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa eta lege hori garatzen dauen araudia be ezarri ahal izango dira. Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren ebazpenak be hartuko dira oinarritzat.

Klausula honen interpretazioak edo ezarpenak sortu leikezan zalantzak, desadostasunak zein bestelako arazoak eta eztabaidak, Gernika-Lumoko Auzitegiaren mende ipiniko dira. Bi aldeek uko egiten deutsee Antolamendu Juridikoaren arabera eskumenak daukiezan beste epaitegiei.



Bermeon, 2014ko .....aren .....an



### III. ERANSKINA

#### Proposamen ekonomikoaren erdua

..... Jaun/Andreak,  
..... Helbidearekin eta ..... zenbakiduneko  
NANarekin, nire izenean edo ..... Helbidea eta  
..... IFZ daukan ..... izeneko  
enpresaren ordeiz,

#### AITORTZEN DUT:

- I.- ..... xedea daukan kontratuaren lizitazio iragarkiaren berri izan dudala.
- II.- Kontratua arautzen dituen Baldintza Administratiboen eta Teknikoen Orriak ezagutzen dituela, horiek onartzen dituelarik.
- III.- Ordezkatzen dudak enpresak indarrean dagoen araudiak finkatutako baldintza eta irizpide guztiak betetzen dituela.
- IV.-Aipatutako kontratuaren betearazpena .....(zenbakitan/hitzetan) Eurotan, BEZ kanpo, proposatzen dudala. BEZari dagokion zenbatekoa .....€koa ( zenbakitan /hitzetan) izango dala.

Bermeon, 2014ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:





**V. ERANSKINA**  
**Lizitatzailleek betetzeko inprimakia**

**ENPRESAREN DATUAK**

**1. Enpresa indibiduala**

Izena:

NAN:

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

PK:

Erregiratutako merkataritza- izena:

.....ko Merkataritza Erregistroan .....  
datan inskribatuta.

**2. Gizarte-enpresa:**

Izena:

IFZ:

Eratze-data:

.....ko Merkataritza Erregistroan ..... datan  
inskribatuta.

Helbidea:

Fax:

Tfnoa:

Ondorengo giza-eskiturak:

**IZENA**

**DATA**

- |                 |                   |
|-----------------|-------------------|
| 1. Aldatzea     | ...../...../..... |
| 2. Handitzea    | ...../...../..... |
| 3. Beste batzuk | ...../...../..... |

**3. Ahalduna:**

Izena:

Ahalordetze-eskitura :

- Data :

- .....ko Merkataritza Erregistroan inskribatuta.



Bermeon, 2014ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



## VI. ERANSKINA

### Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistroko edota Bizkaiko Foru Aldundiaren Lizitatzailen Erregistroko datuen baliagarritasunaren Zinpeko Aitorpenaren Eredua

.....Jaun/Andreak,.....zenbakidunek  
o NANarekin, ..... helbidea eta .....IFZ  
daukan ..... izeneko enpresaren ordez,

#### KONTRATAZIO MAHAIAREN LEHENDAKARIAREN AURREAN AITORTZEN DU

Eusko Jaurlaritzako Kontratisten Erregistro Ofizialak edota Bizkaiko Foru Aldundiko Lizitatzailen Erregistroak emandako ziurtagirian jasotzen diren datuen baliagarritasuna eta indarraldia, batez ere, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 60. artikuluari dagozkionak.

Bermeon, 2014ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:



## VII. ERANSKINA KAUDIMEN EKONOMIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin, ..... helbidea eta .....IFZ  
daukan .....izeneko enpresaren ordezt, ..... xede  
daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

Enpresaren negozioen kopurua azken hiru urtetan ondokoa izan dala:

- 2011. Urtea:

- 2012. Urtea:

- 2013. Urtea:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen ekonomikoa frogatuta gera  
dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014ko .....ren .....an.

Sinatuta:

NAN:





## VIII. ERANSKINA KAUDIMEN TEKNIKOA

.....Jaun/Andreak,.....zenbakiduneko  
NANarekin, ..... helbidea eta .....IFZ daukan  
.....izeneko enpresaren ordezt, .....  
xede daukan kontraturako eskatzen den kaudimen ekonomikoari begira,

ERANTZUKIZUNEZ AITORTZEN DU:

1. Azken hiru urtetan enpresa honek egindako lanak ondokoak izan direla:

### 2011. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2012. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

### 2013. Urtea

XEDEA	BEZEROA	DATA	PREZIOA	ZIURTAGIRIA

2. Kontratua betetzeko gure esku dauden unitate teknikoak ondokoak direla:
3. Ingurugiroko kudeaketa neurriak ondokoak direla:
4. Enpresaren baliabide pertsonalak ondokoak direla:

Eta aipatutako lizitazioan parte hartzeko kaudimen tekniko frogatuta gera  
dadin, adierazpen hau sinatzen dut.

Bermeon, 2014ko .....ren .....an.

Sinatuta:  
NAN:

